

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n
KONTRATATZEKO DEIALDIA
(2025)**



SARRERA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean UPV/EHU), Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerketa gune nagusia den aldetik, kalitateko ikerkuntza jarduerak egiteko erantzukizuna dauka. Testuinguru honetan, unibertsitateko ikertaldeek ezin diete beti aurre egin ikerkuntza estrategikoaren erronkei, dauzkaten baliabideak batzuetan ez baitira behar adinakoak. Helburu honen garatzeko, honako deialdi hau bitarte delarik, doktoreen espezializazioa, hobekuntza eta laneratzea sustatu nahi dira, unibertsitateko ikertaldeetarako aldi baterako kontratazio neurriak sustatuta.

Ikuspegi hau aintzat harturik eta Unibertsitate Sistemaren Planean aurreikusitako ekintzei jarraituz, definitu da deialdi hau, ikertzaile doktoreak espezializatzeko eta hobetzeko hiru urteko programa bat eskaintzen duena. Deialdi honen bidez, jakintza arlo guztietako doktoreen ikertzeko gaitasuna hobetu nahi da, hauen guztien ikerkuntza jardueren kopuruak eta kalitateak gora egin dezaten. UPV/EHUK bultzatutako nazioartekotze planaren esparruan eta Unibertsitate Sistemaren Planaren Unibertsitatea + Euskadi Basque Country ardatzean ere jasota, deialdi honek baldintza moduan ezartzen du laguntzaren hasierako aldian gutxienez urtebeteko egonaldia egin beharko dela atzerriko ikerkuntza guneren batean.

Deialdi honetan laguntza ildo espezifiko bat txertatzen da ikerketa jarduera UPV/EHUri begirako interes estrategikoa duten arloetan egiten duten ikertaldeetan ikerketa sustatzeko, horiek ere Unibertsitate Sistemaren Planaren lehentasunekin lerrokatuta.

Horretarako, 3.400.000 euro bideratuko dira guztira, Bikaintasun zientziaren ardatzean 2023-2026 aldirako Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa kontratuaren barruan esleitutako finantzaketan oinarrituta ezarritako aurrekontu kredituaren arabera, honako ekintza hauen bidez: "Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko ikertzaileak prestatzeko programa kontratuak sustatzea"; "Dauden ikertaldeei eta hasiberriei laguntzea, ikerketaren erreferentzia unitate gisa, nazioartean duten lehiakortasuna bultzatuz"; eta "Ikertzaileen mugikortasun eta egonaldi programak nazioarteko edo ZTBE-Seko agenteetan". Adierazitako zenbatekoa urtero erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera handitu ahal izango da. Zenbateko osoa deialdi honen babesean eta berori indarrean dagoen artean formalizatuko diren kontratuen kostua ordaintzeko erabiliko da.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da ikertzaile doktoreen espezializazioa, hobekuntza eta laneratzea sustatzea, aldi baterako kontratatzeke neurriak bitarte izanik, unibertsitateko ikertaldeei atxikiz eta jakintza zientifikokoaren edozein arlotan dela.

Egin beharreko lana, nagusiki, ikerketa lana izango da xede duena ikertzaileak prestakuntza maila eta espezializazio profesional handia lortzea esperientzia profesionala finkatze aldera.

Deialdi honen ondorioetarako ulertuko da Unibertsitateko Ikertalde (UIT) izango direla UPV/EHUn deialdietako batean ikertalde gisa finantzatu izan direnak edo euskal unibertsitate sistemaren ikertalde deialdietan A edo B mota gisa aitortutakoak, 2025ean aktibo izanez gero.

2. OINARRIA. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

2.1. Gehien dela, 20 kontratutarako deia egiten da, ikerkuntzaren arlo guztietara irekita, hauetarik gutxienez bi ikerketaren bost arloetako bakoitzerako bina kontratu gordeta (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak).

Bigarren kontratuaren erreserba egiteko dagokion arloan eskarien %10 egon beharko du gutxienez eta 65 puntutatik gora izan beharko ditu 11. oinarriko ebaluazio irizpideekin bat etorrira.

2.2. Era berean, bi kontratutarako deialdia egiten da, berariaz, UPV/EHUn, Eusko Jaurlaritzaren, Ikerbasqueren, EAEko hiru diputazioen, Estatuko Ikerketa Agentziaren edo Europar Batasunaren deialdietatik gehienez doktoretza ondoko laguntza bat azken bost urteetan lortu izan duten ikertaldeek egindako eskaerarako (aipatutako aldian ebatzi izan diren kontratuak hartuko dira kontuan). Baldintza hau ofizioz aztertuko du Ikerketa Rudeatzeko Zuzendaritzak (aurrerantzean IKZ).

Ondorio horietarako, talde aktibotzat hartuko da eskaera egiteko unean indarrean dagoena, bai eta taldekideen jatorrizko taldeak ere (adierazitakoaz bestelakoak badira) aipatutako aldian.

Kontratu espezifiko horiek ebaluatzeak irizpideak kupo orokorrekoen berdinak izango dira, eta hautatutako pertsonen 65 puntu baino gehiago izan beharko dituzte. Kontratu espezifiko biak ez dira inola ere emango jakintza arlo berean, ez eta ikertalde berean ere.

2.3. Kontratuetakoa bat gordeko da %33ko ezgaitasuna edo handiagoa luketen pertsonentzat, baldin eta 1. oinarrian ezarritako lana garatu ahal izateko gaitasuna egiaztatzen badute, zuzendari zientifikoak egindako txostena bitarte. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako laguntza hutsik geratzen bada, kupo orokorrari gehituko zaio.

2.4. Bi kontratu espezifikoak aintzat hartuko dira 2.1 oinarrian aipatutako ikerketa eremuetarako bigarren kontratua erreserbatzeko irizpideari dagokionean, bai eta desgaitasunik egiaztatzen duten pertsonentzako erreserbarako ere.

2.5. Deialdi honen bidez lortutako lan kontratua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikulua (aurrerantzean, ZTBL) arautuko du, lege horrek 2022ko irailaren 6an izandako aldaketa barne delarik; eta arduraldi osoa izango du.

2.6. Kontratututako pertsona UPV/EHUn sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio.

2.7. Sinatu beharreko kontratuaren iraunaldia 36 hilabetetako izanen da, berori formalizatutako deneko datatik hasita.

Kontratuaren 36 hilabeteak bi fasetan antolatuko dira: lehenengo faseak gutxienez 12 hilabete eta gehienez 24 hilabete iraun dezake, eta ikertzailea atzerriko ikerketa gune batera joango da, ikerketa proiektu bat egiteko. Bigarren faseak, bere aldetik, gutxienez 12 hilabete eta gehienez 24 hilabete iraun dezake eta ikertzaileak lan egingo du bere eskaerari atxikitako ikertaldean.

Onuraduna, kontratua sinatu eta berehala, UPV/EHUn arituko da atxikipenari dagokion sailean, institutuan edo ikastegian, 13.4 oinarrian ezartzen den moduan, bertan lan egingo duelarik atzerriko ikergunean hasi arte. Kontratua sinatu (inola ere 2026/02/01 baino lehen) eta gehienez ere hilabete epean sartuko dira atzerriko ikerketa gunean. Ezinbesteko arrazoiengatik atzeratu ahal izango da laneratzea (bisatua lortzeko ezintasuna, aldi baterako ezintasun egoeran egotea, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa edo harrera, edoskitzaroko arriskua, aitatasuna edo antzeko inguruabarrak), gehienez 6 hilabetez eta IAEren baimena aurretik dela. Nolanahi ere, kontratua sinatu eta helburuko gunean hasi arte igarotako denbora murriztu egingo da bigarren faseko gehieneko 24 hilabeteetatik.

2.8. Ikertzaile doktoreak, laguntzaren lehenengo urtean, ikerketa lanak egiteko aldi baterako hartuko dituzten atzerriko guneak, unibertsitate edo ikerketa gune publiko edo pribatuak, irabazi asmorik gabekoak izango dira, doktoretza ikasketak egin direnekoaz beste izanik.

Atzerriko eskatzaileen kasuan, lekualdatze edo helburuko gunea ezin izango da egon eskatzailearen jatorrizko herrialdean. Atzerriko gunean egon ahal izateko, betiere, helburuko gunea non egon eta bertan izan beharko egoitza iraunkorra onuradunak.

2.9. Aldi baterako lan ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

2.10. Ikerkuntzaren arloko errektoreordeak kontratuaren eteteko baimena eman ahal izango dio interesatuari sei hilabeteren gehieneko eperako, interesatuak horretarako eskari arrazoitua aintzat hartuta. Honelako kasuetan, etenaldi hori ez da berreskuratu behar; kontratua erabakian ezarritako mugaeguna helduan amaituko delarik. Kontratuaren etenaldian zehar baja emango da gizarte segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko irizpideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da eta automatikoki emango zaio baja. Etenaldi hori ezin izango da, inola ere, 12 hilabetetako egonaldi jarraituan eman atzerrian.

2.11. Deialdi honen baitan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko ordainsari gordina, UPV/EHUK kategoria honetan lanaldi osoko arduraldian ari den pertsonalari ezarritako diona izango da.

2.12. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUn artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko baita.

3. OINARRIA. ESKATZAILEEN BETERIZUNAK

3.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileak baldintza guztiak bete behar ditu ondoren zerrendatzen diren **eskaria aurkezten denean**:

3.1.a. Doktore tituluaren jabe izatea edo 6 hilabete naturalen epean lortzeko modua izatea.

Doktore tituluaren jabe ez balitz, agiri bat aurkeztu behar da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabeteren epean (eskariak aurkezteko amaiera datatik kontatzen hasita) lortzeko moduan dagoela.

Atzerriko ikastegietan lortutako doktorego titulu bat aurkeztuz gero, tituluaren eta Espainiako doktore mailaren arteko baliokidetasun deklarazioa eduki beharko da.

Lan kontratua formalizatzeko unean egiaztatu beharko da doktorego tituluaren jabetza edo, atzerriko ikastegi batean lortutako tituluen kasuan, Espainiako baliokidetasun deklarazioa izatearen baldintza betetzen dela.

3.1.b. Gehienez ere hiru urte igaro izana doktorego titulua lortu zenetik. Eskatzaileak doktorego titulu bat baino gehiago badu, epe hori lehenengoari aplikatuko zaio.

Doktoregoaren lortze datatzat hartuko da doktorego tesia irakurri eta gainditu zeneko data.

Aipatu epea kontatzerakoan ez dira kontutan hartuko Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko atsedenaldiak, gaixotasun larriagatiko edo istripuagatikoaldiak; betiere, medikuak emandako bajak hiru hilabetetatik gorakoa izan behar du.

3.1.c. Proposamena egiten duen zuzendari zientifikoari dagokion **ikertaldearen abala izatea**, eta ikerketa jarduera garatuko duen UPV/EHUko atxikipen sailaren, institutuaren edo ikastegiaren baimena izatea.

3.1.d. **Atzerriko gune baten eta erakunde horretako zuzendari baten abala izatea**, egonaldiaren onarpena ziurtatzeko eta eskatzaileak proposatutako ikerketa programa baliozkotzeko.

3.1.e. CNEAI-k kasuan kasuko jakintza arlorako ezarritako irizpideen arabera bi ekarpenen egiletza edo egile-kidetzat egiaztatu beharko dute. Argitalpenen kasuan, aski izango da aldizkariak adierazitako egiaztapena aurkeztea. Doktorego tesia bera edo argitalpen zerbitzuren batek tesiaz egindako argitalpena ez da aintzat hartuko helburu honetarako.

3.1.f. Lehenago edo unean une laguntzarik eduki ez izana, UPV/EHUko doktorego ondoko laguntzetan edo Eusko Jaurlaritzako ikertzaile doktoreak hobetzeko. UPV/EHUk Espainiako unibertsitate sistemaren birkualifikazio deialdietan dei egindako Margarita Salas laguntzak ez dira bateraezintasuntzat hartuko betekizun horretan.

3.2. Pertsona bakoitzak **eskari bakarra** aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

3.3. Lan kontratua formalizatzeko unean, eskatzaileak egiaztatu beharko du ez duela UPV/EHUk edo beste erakunderen batek kontratatu, ZTLBren 22. artikulua arautzen duen kontratu modalitatearekin, 3 urtetatik gorako epean.

4. OINARRIA. ESKARIA BERMATZEN DUEN ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BALDINTZAK

4.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileak ondoren zerrendatzen diren baldintza hauek guztiak bete behar ditu **eskaria aurkezteko unean**:

4.1.a. **UPV/EHUrekiko kontratu lotura izan behar du**, eskaria aurkezteko unean hasi eta laguntzaren iraunaldi osoan zehar.

4.1.b. Gutxien dela, hiru seiurteko edo seiurteko bizi bat izatea (azken 6 urteetan lortutakoa), CNEAIk emana edo ebaluazio positibo baliokidea, irakasle ez-iraunkorrenzat antzeko ebaluazio agentzia egiaztatu batek emana, eskaria aurkezteko unean.

Salbuespenez, Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikerkuntza jardueraren ebaluazioa gestionatuko du xede horretarako kontratatutako agentzia baten bidez, norbere kontratuaren izaerarengatik CNEAIren seiurtekoak eskuratzeko urteroko deialdira aurkezterik ez duten zuzendariak parte hartzeko aukera izan dezaten errazte aldera. IKZk zuzendariaren onarpen baldintzatua egingo du eta deialdi espezifiko bat irekiko du zuzendariak bere ekarpen garrantzitsuenak aurkez ditzan, proposamenaren abal emaila gisa duen gaitasun zientifikoa

bermatze aldera. Ebaluazio hori UNIBASQek edo antzeko ezaugarriak dituen agentzia ebaluatzaile batek egingo du.

4.1.c. Eskaria aurkezten deneko unetik bertatik eskaria bera bermatzen duen **ikertaldeko kide izan behar du** (1. oinarrian emandako definizioari jarraiki).

4.2. Zuzendari bakoitza deialdi honetako **eskari bakar batean** agertu ahal izango da.

5. OINARRIA. ESKARIA BERMATZEN DUEN IKERTALDEAREN BALDINTZAK

5.1. Ikertalde gisa aitortua izan behar da eta finantzaketa lortu ondoko deialdi hauetako batean:

a. 2021ean aktibo diharduten Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldearen jardueretarako dirulaguntzen deialdia (Eusko Jaurlaritzaren ikertalde finkatuen deialdia).

b. 2025ean jardunean dauden UPV/EHUko ikertaldeei laguntzak emateko deialdiak (2021, 2022, 2023 eta 2024ko deialdiak).

6. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

6.1. Eskubidea dute txertatzen direnengo adskripzio sail, institutu edo ikastegien laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko.

6.2. Zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte proposatutako ikerketa jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan, UPV/EHUn ez beste inon eta laguntza aldiaren bigarren fasean zehar, (gehienez bi urtetan) eta, gehien dela, 100 eskola ordu urteko, dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, irakasgai ardurarik izan edo ikasleen ebaluazio edo probarik egin ezin dutelarik.

6.3. Onuradunak unibertsitatearen Ikerketarako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) erabili eta baliatzeko bermea izango du, bai eta bere baitan hartzen dituen unibertsitateko ikertaldearen azpiegiturak eta materiala ere.

Era berean, eskubidea izango du sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta unibertsitateko ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

6.4. Doktorego ondoko kontratu horien onuradunek eskubidea izango dute derrigorrezko egonaldia egiten duten atzerriko ikastegian 12 hilabeteren egonaldi jarraitua egiten duten joan etorrien, ostatuaren eta mantenuaren gastuetarako laguntza jasotzeko, 15. oinarrian zehazten diren baldintzetan.

7. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

7.1. UPV/EHUko atxikipen sailean, institutuan edo ikastegian sartzea, deialdi honetako 13.4 oinarrian ezarritako epean, ikerketa lana egiten hasteko.

7.2. Esleitutako sail, institutu edo ikergunearen funtzionamendurako arauak bete beharko dituzte, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oporrei dagokienez ere.

7.3. Helburuko gunean atzerrian hastea 2.7 oinarrian ezarritako epean. Bertan egingo du bere ikerketa jarduera, gutxienez 12 hilabetez, etenik gabe.

UPV/EHUko zuzendari zientifikoak eta atzerriko zuzendariak sinatutako idazki baten bidez egiaztatu beharko da sartze hori, sarrera data adierazita. Halaber, helmugako herrialdean bizi dela justifikatzen duen alokairu kontratua aurkeztu beharko da, lanean hasi eta hilabeteko epean.

7.4. Atzerriko gunean egon ondoren, UPV/EHUko atxikipen sailera, institutura edo ikastegira itzultzea, laguntzaren iraupeneko 36 hilabeteak bete arte geratzen den denborarako.

Eskabidea abalatzen duen zuzendari zientifikoak eta atxikipen saila, institutua edo ikastegia zuzentzen duen pertsonak sinatutako idazki baten bidez egiaztatu beharko da lanera itzuli dela, UPV/EHURA noiz itzuli den adierazi beharko delarik.

7.5. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IKZ-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

7.6. IAERI baimena eskatzea iraupen laburreko aldi baterako irteerak egiteko UPV/EHUko atxikitze

ikastegitik nahiz atzerriko gunetik, ikerketa premiak direla eta (hala nola biltzarretara, ikastaroetara, mintegietara edo antzekoetara joatea). Horretarako, IAEn baimena lortu ondoren, dagokion lizentzia eskatu beharko zaio Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari (aurrerantzean, IIAE), UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileentzako lizentzia eta baimenen tresna erabiliz. Irteera horiek IAEk eta IIAEk baimendu beharko dituzte, egin aurretik.

7.7. Irakasleen eta Ikertzaileen Errektoreordetzari (neg.investigadores@UPV/EHU.eus) eta IKZ-ko Giza Baliabideen Zuzendaritzari (rrhh-inves.dgi@UPV/EHU.eus) jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egin diotela, gutxienez 10 egun baliadun lehenago. Inork laguntzari uko egiten badio, edo laguntzaren bat eteten bada, edo beste gorabeheraren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko diote IGZri, gehienez 10 lanegunen epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita. Laguntza honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

7.8. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean Euskal Herriko Unibertsitatearekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, eskerrak emateko atalean, ikertzaile doktoreak kontratatzeke UPV/EHUren Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdia aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan.

7.9. Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeke eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

7.10. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitortpenari betiere eutsiz.

7.11. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeak deialdiko arauak errespetatzea dakar, bai eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta atxikitze sail eta institutuek eta atzerriko guneak, zeinek bere eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeke ezarritako arauak errespetatzea ere.

7.12. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikuluan eta Ikertzailearen Europako Gutunean ezarritako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

8. OINARRIA. ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BETEBEHARRAK

8.1. Zuzendari zientifikoaren betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean arduradun gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote proposatutako ikerketa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

8.2. Prestakuntza programaren garapen egokia zaindu beharko dute, eta ikerkuntzarekin nahiz ikerkuntza egiteko behar den prestakuntzarekin zerikusirik ez daukaten jarduerak eragotzi beharko dituzte.

8.3. Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratutako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta adskripzio sail, institutu edo ikastegian antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

8.4. Atzerriko guneko zuzendariarekin koordinatzea laguntza jasotzen duen pertsonak atzerrian dagoen bitartean egiten duen ikerketa jardura.

8.5. Egiaztatzea laguntzaren onuraduna atzerriko gunean, zein, egonaldia amaitzean, UPV/EHUko atxikitze sailean, institutuan edo ikastegian ari dela.

8.6. Inork laguntzari uko egiten badio, edo laguntzaren bat eteten bada, edo beste gorabeheraren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko diote IGZri, gehienez 10 lanegunen epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita.

8.7. Kontratua jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZk edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean, ikertzaileak egindako lanaren deskribapen zehatza barne, ordura arte helburuak noraino bete diren zehaztuz.

8.8. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak betetzea.

9. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZPIOAK

9.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1716/2011 Errege Dekretua, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, Pazientearen Autonomiari buruzkoa; 15/1999 Legea, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia ere.
- Kasuan kasuko Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde zuretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Arautegiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAⁿ argitaratu zen, 32. zk.).

9.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko arautegia bete (53/2013 ED).
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

9.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babesteari inguruko prebentzio, zuzenbidea eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko arautegia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin eginiko ikerketetarako Etika Batzordearen (CEIAB) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

9.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak errespetatu beharko dute, giza enbrio zelula tronkalak edo horietatik eratorritako zelula lerroak erabiltzerakoan, Lagundutako Giza Ugalketarako Teknikai buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Legea eta soberako enbrioietatik lortutako enbriozelulekin ikerketa proiektuak egiteko eskakizunak eta prozedurak ezartzen dituen 2132/2004 Errege Dekretuan eta giza zelulak eta UPV/EHUⁿ emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, babesteko, biltegiratzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen uztailaren 4ko 09/2014 Errege Dekretuan xedatutakoa.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

9.5. Deialdi honen bidez proposatutako jarduerak ezin izango dute lagundu gerrak garatzen, sustatzen eta bultzatzen, eta, zehazki, ez dira jardungo zuzenean edo zeharka lagunduko armak fabrikatzen eta/edo merkaturatzen diharduten enpresekiko lankidetzan.

10. OINARRIA. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

10.1. Eskaria aurkezteko tokia eta era.

Deialdi honetara aurkeztu behar den dokumentazioa hiru bidetatik aurkeztu ahal izango da:

AURKEZTEKO ERA	OHARRAK
a) Ahal dela , UPV/EHUren erregistro elektronikoa , azaldu beharrekoetan "U02000381_POSTDOC 2025" erreferentzia eta eskaeren atalean: "U02000381_POSTDOC 2025".	Eskatzaileak deialdian ezarritako eskabide inprimakia aurkeztu beharko du, behar bezala beteta, bai eta bertan eskatutako gainerako dokumentazioa ere. Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, sinadura horiek elektronikoak izan beharko dute beti , eta aitortutako ziurtagiri baten bermea izan beharko dute.
b) Posta bulegoetan, "Zure dokumentuak berehala erregistratu eta herrialdeko administrazio publikoetara bidaltzeko" ORVE zerbitzuaren bidez.	Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, jatorrizkoak izan beharko dute beti (eskuz eginak) . Posta bulegoko edo sektore publikoko edozein erakunderen erregistroen arloko laguntza bulegoetako arduradunak eskaera digitalizatuko du, eta "Giza baliabideen ikerketa kudeatzea (U02000381)" unitate izapidegilearen bidez bidaliko du, "POSTDOC 2025" erreferentziarekin. Bi aurkezpen bideotan (b eta c) PEN DRIVE bat erantsiko da, aurkeztutako dokumentazio guztia PDF formatuan eskaneatuta, eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidaliko da (Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa).
c) Sektore publikoa osatzen duen edozein erakundetako erregistroetarako arreta bulegoetan.	

Salbuespen gisa, eta **Espainiako lurraldean (errola ziurtagiria edo parekoa, alokairu kontratua)** bizi ez diren hautagaiek ez beste inork aurkeztu ahal izango du eskabidea posta elektronikoz, pre-postdoc.dgi@UPV/EHU.eus helbidera bidaliz, deialdiaren 10.2 oinarrian eskatutako dokumentazio guztia PDF formatuan, gaian "POSTDOC 2025" adieraziz. UPV/EHUko pertsonalak esku hartzen duen dokumentu guztien **sinadurak elektronikoak izan beharko dira beti**, eta **aitortutako ziurtagiri** baten bermea izan beharko dute. Horrez gain, eta kanpoko sinadurak egiazkoak direla prozesuan bermatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat bidaliko du, sinadura horiek egiazkoak direla berresteko, eta emakidaren behin betiko ebazpena argitaratu baino lehen sinadura horiek eskuz aurkezteko konpromisoa hartuko du.

Eskatzaileak Espainiako lurraldean bizi direlarik, bide horretatik jasotzen diren eskaerak "aurkeztu ez direla" ulertuko da, eta automatikoki geratuko dira prozesutik kanpo.

10.2. Beharrezko dokumentazioa:

- a. **Eskaria**, [Ikerketaren arloko webgunean](#) **eskura daitekeen eredua erabiliz, behar bezala sinatuta**.

Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.

Eskabidea **ingelesez** aurkeztuko da **lehentasunez**, baina EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.

b. **Proiektuaren memoria**, ikerketaren arloko webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztu beharko dena.

Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Berori epean eta forman aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoa izango da.

Proiektuaren memoria **ingelesez** aurkeztuko da **lehentasunez**, baina EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango da, euskaraz eta gaztelaniaz.

c. **Eskatzailearen curriculum vitae** PDF formatuan. Dokumentu hau curriculum vitae laburtuaren (CVL) formatuaz aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute <https://cvn.fecyt.es/editor/> estekari klik eginez. Aipaturiko aplikazioaren funtzionamenduaren inguruan egin beharreko kontsulta teknikoak cau.editor.cvn@fecyt.es helbidera bidali beharko dira. Eskatzailearen CV **ingelesez idatzi beharra** dago eta bertan jasoko dira modu argian 11.1.1. atalean litezkeen gisa deskribaturiko ebaluazio arlo guztiak, kasuan kasuko agiri egiaztagarriak gehituta.

d. **Doktore titulua**. Ikasketak atzerrian eginda izanez gero, dokumentazioari gaztelaniazko edo ingelesezko itzulpena gehitu behar zaio. Tesia oraindik defendatu gabe izanik, agiri bat aurkeztu beharko da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabete naturalen epean lortzeko moduan dagoela, eskaerak aurkezteko azken datatik abiatuta. Nolanahi ere, titulua agertu beharko da kontratua sinatzerakoan.

e. **UPV/EHUko atxikipen sailaren, institutuaren edo ikastegiaren onarpen agiria**, non burutuko baita eskatzailearen ikerketa jarduera, zuzendari zientifikoa ere bertan atxikita egongo delarik.

f. **Atzerriko unibertsitatearen edo ikerketa gunearen onarpen agiria**, eskatzaileak gutxienez 12 hilabetetako egonaldia onartzen duela egiaztatzen duena, deialdi honen xede den laguntza lortuz gero, eta proposatutako ikerketa programa baliozkotzen duena. Dokumentu hau (formatu librean egin daitekeena) sinatu beharko dute atzerriko gunearen ordezkari legalak eta gune horretako harreraren ardura izango duen zuzendari zientifikoak.

g. **Euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiria**, merezimendu hori egiaztatu nahi izanez gero. Ez da onartuko ziurtagiririk, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero lortu badira. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek norberari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

h. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartzen diren pertsonentzat, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila egiaztatzen duen ziurtagiria, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere, 1. oinarrian ezarritako egin beharreko lanarekin bateragarria dela ziurtatzen duena.

i. UPV/EHUtik kanpoko sinaduren egiazkotasuna bermatuko lukeen erantzukizunpeko adierazpena (eskuratu beharreko eredu baliatuta) 10.1 oinarrian ezarritakoari jarraiki.

10.3. Ebaluatzaileak euskaldunak ez badira, IAE arduratuko da euskaraz aurkeztutako eskabideak eta CVak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeaz.

Itzulpena jasotakoan, posta elektronikoz bidaliko zaio eskatzaileari, eskabidean adierazitako posta kontuaren bidez, eta hark bost egun balioduneko epea izango du hura berrikusi eta adostasuna emateko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

10.4. **Eskariak aurkezteko epea**. Eskabideak aurkezteko epea 2025ko ekainaren 2an hasi eta 20an amaituko da.

11. OINARRIA. ESKARIEN EBALUAZIOA

11.1. Dirulaguntzak esleitzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1. Eskatzailearen curriculum (0-40 puntu).
 - a. Ekoizpen zientifiko-teknologikoa (0-20 puntu).
 - b. I+G proiektu eta kontratuetan izandako parte hartzea (0-10 puntu).

- c. Mugikortasuna (0-5 puntu).
- d. Bestelako merezimenduak (0-5 puntu). Atal honetan balioetsiko dira hizkuntzen jakitea, tesiaren nazioarteko aipamena edo ezohiko saria eta graduondoko doktoregoz besteko prestakuntza edo ikerketa jardunei loturiko lan esperientzia. Merezimendu hauek guztiauek kasuan kasuko agiri edo titulazio ofizialaren bidez egiaztatu beharko dira.
2. Ikerkuntza programaren interes zientifikoa eta kalitatea (0-20 puntu).
 - a. Ikertu beharreko gaiaren aurrekarien eta egungo egoeraren analisiaren kalitatea eta bibliografia (8 puntu).
 - b. Ikerketaren helburu orokorren garrantzia (8 puntu).
 - c. Metodologiaren eta egin beharreko ikerketa jardunaren egokitasuna (4 puntu).
3. Ikerketaren onurak, gizarte inpaktua, zabalkundea eta emaitzen transmisioa (0-10 puntu).
4. Atzerriko helburuko gunea (0-20 puntu)
 - a. Gunearen prestigioa proposatutako programari dagokion arloan (0-10 puntu).
 - b. Guneak eta zuzendariak bertan eskaintzen dituzten aukerak eta onurak, proposatutako ikerketa proiektuaren bideragarritasuna eta gauzatzea lortzeko (0-10 puntu).
5. Euskararen jakite maila (0-5 puntu).

Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- C2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da balioetsiko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komunean mailekin parekatzeko dena).

6. Ikertzaile hasiberrientzako pizgarria eta genero ikuspegia (0 - 5 puntu).

Puntuazio hori lortzeko aukera baliatu ahal izateko, zuzendari zientifiko hasiberritzat hartuko da honako hiru baldintza hauek betetzen dituen:

- Gehienez 45 urte izatea, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.
- Gutxien dela, defendatutako doktorego tesi bat zuzendu izana.
- Aldez aurretik ez izatea UPV/EHUren, Eusko Jaurlaritzaren, Ikerbasqueren, EAEko hiru aldundien, Estatuko Ikerketa Agentziaren edo Europar Batasunaren deialdien babesean kontratatutako doktorego ondoko ikertzaileen zuzendari zientifikoa.

Hasiberriaren definizioaren baldintza betetzen duten zuzendari zientifikoek 3 puntu lortuko dituzte.

Zuzendariak, hasiberriaren baldintza beteta, 2 puntu gehiago lortuko dituzte, emakumeak badira.

11.2. Aurreko paragrafoko 1., 2., 3. eta 4. irizpideak kanpoko ebaluazio prozesu baten bidez ebaluatuko dira. IKZ-k egiaztatuko ditu 5. eta 6. irizpideak.

12. OINARRIA. ESKAERAK IZAPIDETZEA

12.1. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, IGZk aurkeztutako eskariak aztertuko ditu. Azterketa hau amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskaeren zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak.

12.2. Okerren zuzenketa.

Eskaerak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen

erroreak edukiko balitu, IAEk eskatuko dio eskatzaileari 10 egunen epean osatu eta zuzen dezan. Okerren zuzenketak aurkeztu beharko dira 10. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

12.3. **Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda.**

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Bertan behera utzitzat joko dira, behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez dituztenen eskariak, Administrazio prozedurarako urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikulua dioena aintzat hartuta.

12.4. **Ebaluazio fasea.**

Bi hilabetetatik beherako epean egingo da 11. oinarrian deskribaturiko ebaluazio irizpideen balioespena. Egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; hark dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskatzaileraren batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. Kontratu espezifikoaren eskaeretak, lehenetsiko da aurretik inolako laguntzarik izan ez duen taldeari dagokiona.
- b. Lehenetsi egingo da 11 oinarriaren 1. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.
- c. Lehenetsi egingo da 11 oinarriaren 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.
- d. Lehenetsiko da deialdi honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).
- e. Emakume baten eskaera nagusituko da gizon baten eskaeraren gainetik.

12.5. **Behin-behineko ebazpena.**

IGBBk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAEren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidalitako mezua bidez.

Interesdunek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatutako epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

12.6. **Behin betiko ebazpena.**

Epea hau iraganik, IAEk aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, bertan azter daitezen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazioa emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpena IAEren webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

12.7. **Behin betiko ebazpenaren aurkako errekurtsioak.**

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarritz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteren epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

13. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

13.1. Behin betiko erabakia argitara eman eta hamar lanegunetara, kontrataziorako hautatutakoek, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio IAE-ri:

- a. NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia PDF formatuan.
- b. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- c. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituen.
- d. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- e. Doktore tituluaren fotokopia konpultsatua edo baliokidetasun adierazpenaren kredentziala.
- f. Lanean hasi delako agiria.
- g. Jatorrizko sinadura duen dokumentazioa, aldez aurretik eskabide fasean aurkeztu ez dena.

Eskatutako agiriak epe barruan eta formaz aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

13.2. Europar Batasuneko herritarrek ez diren pertsonen kasuan, Espainian lan egiteko aurretiazko administrazio baimena izan behar dute, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

13.3. Kontratuak formalizatzeko eta lanean hasteko datak emateko behinbetiko ebazpenean adieraziko da eta ez da, inola ere, izango 206/02/01 baino lehenago. Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

13.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

13.5. Kontratua sinatu eta lanean hasteko 13.3 oinarrian adierazten den epea atzeratu ahal izango da, gehienez 6 hilabetetara, esleipendunak behar bezala arrazoitzen badu eta zuzendariak onzat hartzen badu eskaria.

13.6. Kontratua sinatu eta gehienez ere hilabete epean sartuko dira atzerriko ikerketa gunean. Ezinbesteko arrazoiengatik atzeratu ahal izango da laneratzea (bisatua lortzeko ezintasuna, aldi baterako ezintasun egoeran egotea, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa edo harrera, edoskitzaroko arriskua, aitatasuna edo antzeko inguruabarrak), gehienez 6 hilabetez eta IAEren baimena aurretik dela.

14. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua bateraezinak izango da beste edozein kontraturen indarraldiarekin, Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. artikuluko jarduerak eta Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 60. artikuluan jasotako beste erakunde edo pertsona fisiko batzuekiko lankidetzak kontratuak izan ezik.

15. OINARRIA. MUGIKORTASUNAK ERAGINDAKO GASTUAK

15.1. Doktorego ondoko kontratu horien onuradunek eskubidea izango dute kontratuaren laguntza osagarria jasotzeko, destinoa atzerrian duten guneko egonaldian mugikortasun baldintzak eragindako gastuak finantzatzeko.

15.2. Laguntza osagarria 12 hilabetetako egonaldi jarraitua egiteko emango da. Egonaldia 2.7 oinarrian ezarritako epean hasi beharko da.

15.3. Atzerriko egonaldia nahitaez egin beharko da, eskabidean adierazi eta doktorego ondoko kontratuan zehaztutako helburuko gunean.

15.4. Laguntza osagarri honen bidez honako kontzeptu hauek finantzatu dira:

- a. Bidaia gastuak: atzerriko gunerako joan etorriko bidaia bakarria finantzatu da laguntza honen bidez, eta gehieneko zenbatekoa honako kopuru hauen arabera finkatu da:
 - 1.000 km bitartean: 300 euro
 - 1.001 eta 2.500 km bitartean: 600 euro
 - 2.501 eta 11.000 km bitartean: 1.000 euro
 - 11.001 km baino gehiago: 1.200 euro
 Distantzia kalkulatzeko, onuradunaren atxikipen ikastegiari dagokion campusa hartuko da abiapuntutzat, eta erreferentzia gisa <http://es.distance.to> estekaren bidez egindako kontsulta erabiliko da.
- b. Bisatua: laguntza honek 200 eurotako gehieneko gehigarri bat finantzatu du atzerriko egonaldiarentzako, baldin eta bisatua izapidetzea eskatzen badute.
- c. Ostatua eta mantenua: estalitako zenbatekoa 27,35 eurotako izango da gehienez atzerrian egindako egun bakoitzeko.
- d. Asegurua: Laguntzen onuradunek, beren kontratuari dagokion Gizarte Segurantzaren estalduraz gain, erantzukizun zibileko aseguru bat izango dute. Onuradunek IBILI BEREZI osasun laguntza eta bidaia laguntzarako poliza kontratatu beharko dute UPV/EHUko Ondare Zerbitzuaren bitartez (ondarea.aseguruak@UPV/EHU.eus), polizaren kostua IAEk estaliko duenarik.

15.5. Mugikortasunerako laguntza osagarri hau jasotzea bateraezina da helburu bererako beste edozein laguntzarekin.

15.6. Gastuak ordaintzea eta justifikatzea. Onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte IKZn, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikoaren bidez, gaiaren arloan "POSTDOC 2025" adierazita:

➤ Egonaldia hasi aurretik:

- a) Garraio publikoko bidaia txartelak eta fakturak.
- b) Bisa gastuen egiaztagiria, halakorik balego.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ofizioz aurreratuko ditu aurrez aipatutako a eta b kontzeptuen zenbatekoak, bai eta ostatua eta mantenua estaltzeko 4 hilekori dagokiona ere.

➤ Egonaldia hasten den unean:

- Helburuko gunera aritu izanaren ziurtagiria

➤ Egonaldia amaitu ondoren:

- Egonaldiaren ziurtagiria, atzerriko zuzendariak edo atzerriko guneko arduradunak sinatuta, eta egonaldiaren hasiera eta amaiera datak berariaz adierazita.
- UPV/EHUⁿ sartu izanaren ziurtagiria edo derrigorrezko egonaldia luzatu izanaren egiaztagiria.
- Helmugako herrialdean egoitza izan dela justifikatzen duen alokairu kontratuaren kopia, hasiera eta amaiera datekin.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, derrigorrezko egonaldiaren amaieran, emandako laguntzaren gainerako zenbatekoa ordainduko du.

16. OINARRIA. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA.

Laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketa, bereziki ebaluatu ziren alderdiei eragiten badiete, jakinarazi eta baimendu egin beharko da, halakorik balegokio. Eskatutako aldaketak ez onartzeak diru kopurua aldatzea, laguntza jasotzeko eskubidea galtzea eta, hala behar izanez gero, laguntza itzultzea ekar dezake.

17. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Ukoak jakinarazi beharko dio Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzari (neg.investigadores@UPV/EHU.eus) eta IKZren giza harremanen atalari (rrhh-

inves.dgi@UPV/EHU.eus) jakinarazi beharko zaizkie, gutxien dela, **10 lanegun lehenago**.

Kontrataturako ikertzaileen baja medikoen eta gainerako gorabeheren berri zuzendari zientifikoak edo kontraturako ikertzaileak berak eman behar dio, **gertaera eragilea gertatu eta hamar lanegunen buruan**, IKZren giza harremanen atalari; jakinarazpenarekin batera, kasuan kasu, aurkeztu beharreko egiaztapen dokumentuak aurkeztuz.

Kontratu harremana amaitzeari dagokionean, aplikatu egingo dira langileen estatutuetako 49. artikulua jasotako zioak.

18. OINARRIA. JARRAIPENA

Deialdi honen arabera kontraturako langileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa IKZri dagokio, eta horretarako prozedura egokiak ezarriko ditu. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen organo, batzorde edo langile adituak izendatu ahal izango ditu, kontratuaren aplikazioaren jarraipen eta egiaztapen jarduketa egokiak egiteko eta egokitzea jotzen duen informazio osagarria aurkezteko eskatzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteren epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da ebazpena argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorruta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2025eko maiatzaren 29an

Jon Umerez Urrezola
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación